txintxarri

2021-07-23 OSTIRALA / 1553. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Motorrak berotzeko, azoka

Uztailaren 26an ospatuko du Lasarte-Oriak Santa Ana eguna; hori baino lehen, artisau azokaz gozatu dute herritarrek / 7

TXINTXARRI

Jarduerak, 01:00ak arte

Koronabirusaren oldarraldia gutxitzeko asmoz, neurri batzuk gogortu ditu LABI batzordeak / 5

Ikasleen euskarazko ohiturak indartzeko hitzarmena sinatu dute udalak eta guraso elkarteek / 2

Aldundia Bizikleta Bideen Plana urratzen ari dela salatu du Eguzki Talde Ekologistak / 3

Meza, dantzaldia eta parodia, uztailaren 26ko ekintza bereziak, Santa Anaren omenez / 6

Hamaika abentura bizitzen ari dira Ttakun KEren udako txokoetako gaztetxoak / 8-9

EUSKOTREN LIGA / A. ARRIZABALAGA

Ligako buru jarri ostean, Euskadiko txapelketa ere eskuratu du Donostia Arraun Lagunakek / 10

Ezker-eskuin: Noemi Gutierrez, Agustin Valdivia, Jon Antxordoki, Ana Agirre eta Ainhoa Illarramendi. TXINTXARRI

Ikasleen euskarazko ohiturak indartzeko

Lasarte-Oriako Udalak eta herriko hiru ikastetxeetako guraso elkarteek (Burunzpe, Landaberri eta Oriartekide) 2021-2022 ikasturterako lankidetza hitzarmenak sinatu dituzte. Hiruen artean 69.685 euro jasoko dituzte, iaz baino %6,5 diru gehiago

Txintxarri

Agustin Valdivia alkateak, Jon Antxordoki Euskara batzordeburuak eta hiru guraso elkarteetako ordezkariek (Noemi Gutierrezek Burunzperen izenean, Ana Agirrek Landaberrirenean eta Ainhoa Illarramendik Oriartekidereneanean) sinatu dituzte datorren kurtsorako hitzarmenak, udaletxean. Antxordokik azpimarratu du diru ekarpena ez dela "soilik programa batzuk egiteagatik dirulaguntza emate soil bat; udalak eta hiru guraso elkarteek elkarrekin landu dituzte gure herriko haur eta gazteen euskalduntasuna indartzeko lan-lerro nagusiak eta programa zehatzak".

Udalak 69.685 euro emango dizkie Burunzpe, Landaberri eta Oriartekide guraso elkarteei, 2020-2021 ikasturtean baino %6,5 diru gehiago. Horren truke, guraso elkarte horietako bakoitzak ikasleen euskarazko ohiturak indartzeko egitasmoak garatuko ditu kurtsoan zehar; haien jarrerak hobetzeko eta erabilera aukerak gehitzeko egitasmoak izango dira, Antxordokik azaldu duenez.

Hitzartutako programak

Burunzpe guraso elkarteak 12.500 euro jasoko ditu 2021-2022 ikasturtean. Zortzi programa jaso dituzte lankidetza akordioan: gurasoentzako euskarazko eskolak; Hezitzaileek asko egin dezakete; euskarazko aldizkarien irakurketa; Esazu aldizkaria; Gu ere bertsotan; Sasoetako bertso-eskola; eta jolasgaraiak dinamizatzeko proiektua.

Landaberri guraso elkarteari 27.439,10 euro emango dizkio udalak, datorren kurtsoan honako egitasmo hauek garatu ditzan: Irria eta Irrintzi aldizkariak; pertsonaia ezagunen bisitak; Hezitzaileek asko egin dezakete; Gu ere bertsotan; gurasoentzako euskara eskolak; Landaberriko bertso eskola; Euskararen Eguna eta Euskaraz tinko patioan.

IKASTETXEETAKO HIRU GURASO ELKARTEEK 69.685 EURO JASOKO DITUZTE

Oriartekideri dagokionez, Elemeleka izena duen programa ikastetxeko sei ikasmailetako talde guztietan aplikatzea da lankidetza hitzarmenaren muina. Egitasmo horren xede nagusia da gazteen hizkuntza sozializazioa euskaraz izan dadin laguntzea; 2018an esperimentatutako Nerabeak Euskaraldian ikerketa ekintzan du oinarria. Proiektu hori ez ezik, hauek ere lagunduko ditu diruz udalak: Gazte eragileen batzordeak (hiru guztira), pertsonaia ezagunen bisitak, Oriarteko bertso eskola, Euskarazko aldizkarien irakurketa sustatzeko programa eta noka ikastaro bat daude bilduta. 29.745,50 euro jasoko ditu guraso elkarte horrek.

Dirulaguntzak ekintzaileentzat eta establezimenduentzat

Lasarte-Oriako Udalak 40.000 eta 400.000 euro bideratuko ditu ekarpen ekonomikoak egitera, hurrenez hurren

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak bi dirulaguntza lerroren berri eman du aste hauetan. Horietako bat herriko merkatari, ostalari eta zerbitzu pertsonaletako enpresei zuzendu die, COVID-19aren eraginera egokitzeko gastuei aurre egiten laguntzeko. 400.000 euroko partida bideratu du horretara. Bestalde, herrian negozio berriak martxan jarri nahi dituzten ekintzaileei bultzada eman nahi die udalak, eta 40.000 euroko lerro bat onartu du berriki. "Aurreko urteetan baino diru gehiago bideratu dugu; iaz, adibidez, 15.000 euro izan ziren; aurten, %62,5 gehiago".

Eskaerak egiteko epea irekita dago. Komertzioek, tabernek eta jatetxeek eta zerbitzu enpresek abuztuaren 11ra arteko epea izango dute horretarako, asteazkenarekin. Presentzialki zein telematikoki egin ditzakete eskabideak interesa dutenek. "Dokumentazio gutxi eskatuko diegu pertsona fisikoei zein juridikoei; oinarrizkoa", adierazi du Agustin Valdivia alkateak. Informazio gehiagorako, udalaren atari digitala kontsulta daiteke: *www.lasarte-oria.eus*.

Ekintzaileen kasuan, epea honako hau da: 2020ko azaroaren 1etik 2021eko urriaren 31ra, bi egunak barne. Nuria Fernandez Sozioekonomia batzordeburuaren esanetan, departamentuak "eskabide dezente" jaso ditu honezkero. "Pozik" dago udala horregatik, haren helburua baita partidan jasotako 40.000 euroak gastatzea, "azken zentimora arte".

Dirulaguntzen ezaugarriak

Merkatariei, ostalariei eta zerbitzu enpresei bideratutako 400.000 euroak bi lerrotan banatu ditu udalak: taberna eta jatetxeentzat 180.000 euro, eta komertzio zein enpresentzat, 220.000 euro. Arestian aipatutako sektoreetako profesionalek egindako eskaerei erantzuteko 400.000 euro horiek nahikoa ez balira, Valdiviak eta Fernandezek jakinarazi dute establezimendu bakoitzak diru gutxiago jasoko lukeela proportzionalki, nahiz eta uste duten halakorik ez dela gertatuko, udalak aurrez kalkulatu duelako balizko onuradunen kopurua: 90 bat ostalaritza establezimendu eta 280 komertzio inguru.

Negozio berriak martxan jarri edo jarriko dituzten ekintzaileek oinarrizko ekarpen bat jaso dezakete, 2.500 eurokoa asko jota, eta zenbait osagarri ere bai, sortu nahi duten jardueraren araberakoa. Udalak espero du bideratu dituen 40.000 euro horiek gastatzea. Hala ez balitz, onartuak izan diren eskaerak egin dituztenen artean banatuko luke soberan geratutako dirua, betiere bakoitzak kobratu duen kopuruaren %20 gainditu gabe. "Bultzada garrantzitsua eman nahi diegu ekintzaileei, eta lagundu nahi dugu Lasarte-Orian establezimendu gehiago sortzen", azpimarratu du Fernandezek.

KIUB bulegoa, zerbitzutik kanpo aldi baterako

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa (KIUB) zerbitzutik kanpo dago uztail hasieratik, Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi duenez. Ekainaren 30ean amaitu zen kontratua, asteazkenarekin, eta berritzea posible ez zenez, zerbitzua eten egin zuen bulego horrek. Udalaren hitzetan, "laster" ekingo dio lizitazio berriari. Bien bitartean, lasarteoriatarrei aholkatu die Kontsumobidera joateko, izan ditzaketen kexa, iradokizun eta bestelakoekin.

Kontsumobideko bulegoa Donostian dago, Easo 10 kalean. Joan aurretik, hitzordua hartu behar da 900 84 01 20 telefonoan edo *www.kontsumobide.eus* atari digitalean. Udalak barkamena eskatu du KIUB bulegoa itxita egoteak herritarrei sor diezazkiekeen eragozpenengatik.

Bizikleta Bideen Plana urratu dutela iritzi dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak Bizikleta Bideen Plana urratzen jarraitzen duela salatu du Eguzki Talde Ekologistak. Lasarte-Oria eta Txikierdi (Usurbil) arteko bidegorria eraikitzen hasi diren unean, lan horiek amaituta beharko luketela gogorarazi dute

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizikleta eta Bideen Planak aurrera egiten duen seinale beharko lukete izan Lasarte-Oria eta Txikierdi (Usurbil) arteko bidegorriaren lanek, baina, Eguzki Talde Ekologistak ez du uste seinale ona denik. Taldearen ustez, lan horiek adierazten dute zenbateraino urratu duten aipatu plan hori.

Iritzi hori argudiatu du taldeak. Azaldu du Lasarte-Oria eta Txikierdi arteko kilometro bakarreko bidegorria "txikia eta apala" dela, eta, ez duela inolaz ere emango, aurreko zatiak, hau da, Errekalde eta Luzuriaga lantegiaren artekoak, ematen duen zerbitzua. Talde ekologistako kideek aitortu dute, ordea, "begi bat gehiago" izango dela Bizikleta Bideen Planean aurreikusitako Donostia eta Mutriku ibilbidearen katean.

Gogorarazi dute Bizikleta Bideen Plana 2013ko ekainean onartu zutela, aho batez, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkatuta zeuden talde politiko guztiek, eta, Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarean egiteke dauden bidegorri zatiak egiteko, hau da, sarea behingoz erabat osatzeko plana osatzeko zortzi urteko aurreikuspena zuela, lau urteko bi alditan banatuta, 2013-2017 eta 2017-2021, hain zuzen.

Lasarte-Oriatik Txikierdira doan bidegorriaren lanen argazki bat. EGUZKI

Hortaz, plan horren arabera, Lasarte-Oria eta Txikierdi arteko bidegorri zatiak 2017rako amaituta egon behar zuela zehaztu du taldeko ekologistak, eta Donostia eta Mutriku ibilbideak, berriz, 2021erako oso-oso aurreratua egon beharko lukeela: "Planaren jatorrizko exekuzio-epea konplituta (ekainean konplitu zen), Donostia-Mutriku ibilbidea osatzeko falta ziren tarteez hitz egiten aritzeko moduan egon beharko genuke, eta, aldiz, Lasarte-Oria eta Txikierdi arteko zatia behingoz eraikitzen hasi direlako hitz egiten ari gara". Eguzkiren ustez, horrek agerian uzten du Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbateraino urratu duen Bizikleta Bideen Plana. Kontatu dute, salaketa horiek Donostia eta Mutriku arteko ibilbideari dagozkiola, baina Donostia eta Irun edo Donostia eta Beasain arteko ibilbideetan gertatzen ari diren "atzerapen eta urraketez" ere hitz egin dezaketela.

Azaldu du GFA aurreikusitako plana urratzen ari dela ez dela talde ekologistaren irudipen bat: "Foru teknikariek berek, lehen laurtekoa pasatuta egin zuten txosten batean, argi eta garbi utzi zuten, Aldundiak indar gehiago egin ezean, berez zortzi urtean gauzatu behar zen Plana gauzatzeko hamazazpi urte beharko zirela". Eta, azpimarratu dute horixe dela gertatzen ari dena.

NEURE KABUZ

MIKEL YARZA ARTOLA

Noiz amaituko ote da?

Egunero nabil mikrofonoa eskuan, jendeari galderak egiten, kontatu nahi duena entzuten, erantzun esanguratsuak bilatzen... Irratia piztearen tankerakoa da hondartzara etorri eta inguruan ditudan pertsonei erreparatzea. Eguzkitan etzan, isildu eta belarriek hamaika frekuentzia sintoniza ditzakete.

Oporraldia, liburuak, parranda... uda giroko hizketaldirik ez da falta. Lana, alokairua, fakturak... eguneroko kezka iturri diren gaiak ere ez. Nerabe lotsatiak ez du amarekin paseatzera joan nahi, lagunek harekin ikusiko dutelakoan. Bien bitartean, amonarekin bizitzea nolakoa den kontatu dio neska batek besteari, emakumeen duela 80 urteko bizitza eta egungoa alderatu dituzte.

Begirada altxa eta irribarretsu ikusi dut jende andana, haize epela eta ur freskoa euren alde. Pasa den uda hasierako argazkiaren antzekoa da begi aurrean dudana, ia inork ez darama maskararik, ez hondar artean, ezta asfalto gainean ere. Eguzki eta itsas zaleen soslaia lagun, iritsi da ilunabarra. Behin autobus berdea zena hartu eta errepide nazionalean egin dut bidea, kostaldetik barnealdera.

Etxera heldu, telebista piztu eta goitik behera aldatu zait aldartea. Kolpez desagertu da oasia. Kutsatzeak, ospitaleratzeak, heriotzak, neurri murriztaileak... Azken urte eta erdian ez dugu besterik izan. Noiz amaituko ote da? Hemen segituko dugu, zain.

Sareren bizikleta itzulian parte hartzeko aukera

Garestik hasi eta Donostiara arte, euskal presoen aldarriak lau haizetara zabaltzen ari den bizikleta itzulia Hego Euskal Herria zeharkatzen ari da egun hauetan. Uztailaren 24ko etapa Gipuzkoan izango da, larunbatez, Zumaian hasi eta Donostian bukatu. Lasarte-Oriako Sarek bat egingo du egitasmoarekin, eta jakinarazi du 10:30ean jarri duela hitzordua Okendo plazan; herritarrak gonbidatu ditu ekimenarekin bat egitera. Errekaldera joango dira, eta Usurbildik etorriko den zutabearekin bat egingo dute. Horren ostean, Donostiara abiatuko dira

Ibilian ibilian, etxerako bidean dinamikaren baitako ekimena da bizikleta itzulia. Aurtengoa laugarren edizioa da. Lehenengo etapa uztailaren 22an izan zen, Garestik (Nafarroa) Oionera (Araba) bitartekoa; bigarrena hilaren 23an izango da, Sopelatik Mundakara (Bizkaia), eta azkena, uztailaren 24koa, Zumaiatik Donostiara (Gipuzkoa).

Ez da Sarek udaran egingo duen ekintza bakarra. Abuztuaren 21ean Donostian manifestazio bat egingo dutela iragarri dute.

Ramon Ormazabal (ezkerrean) eta Antton Salsamendi (eskuinean) Sendoki kultur batzordeko kideak. TXINTXARRI

Sendo aritu dira berrogei urtez

Euskal Herriko eta nazioarteko kultura Lasarte-Oriara ekarri eta kultur ekintzen eskaintza egiteko asmoz elkartu ziren, herriko hainbat gazte, duela berrogei urte. Lau hamarkadetako lana egin du Sendoki kultur batzordeak, orain, amaierara iritsi berri dena

Maddi Zaldua

Duela berrogei urte eman zituen lehen pausoak Sendoki kultur batzordeak. "Sendo, zuzen eta zorrotz", hortik hartu zuelarik izena gaurdaino lanean aritu den kultur batzordeak, Lasarte-Orian oraindik udalerri gisa sortu gabe zegoela, Euskal Herriko zein nazioarteko kultura sustatzeko helburuarekin elkartu ziren herriko zenbait gazte: "Garai onenetan hogei pertsona baino gehiago aritu gara lanean". Kultura sustatzeko gogoz indarrak batu, eta ekintzak antolatzeari ekin zioten, gazte talde gisa hasieran, eta, izaera juridikoa hartuta, gazte delegazio gisa gero. Pasa dira orduz geroztik lau hamarkada, eta, orain, kultur batzordearen ibilbidearekin amaitzeko erabaki hartu dute. Horrela, urte luze horietan egindakoaz, eta agurraz hitz egiteko, Ramon Ormazabal (Lasarte-Oria 1961) eta Antton Salsamendi (Lasarte-Oria, 1966) elkarrizketatu ditu TXINTXARRI-k.

Oso gogoan dituzte biek hasierako urteak. Ormazabalek kontatu du EAJren gazte mugimenduan zebiltzan zenbait kidek eman zituztela lehen pausoak. Kontatu du kultura mailan sumatu zuten hutsunea betetzeko beharra ikusi zutela, eta horri erantzun bat emateko asmoz ekin ziotela ibilbideari.

Argi zuten helburua: Euskal Herriko eta nazioarteko kultura herrira ekarri eta ezagutaraztea. Eta xede hori jomuga eman zituzten lehen urratsak. Horrela, taldea ezagutarazi, eta apurka-apurka EAJren gazte mugimenduarekin zerikusirik ez zuen herritarrak batu zitzaizkiela kontatu dute: "Alderdi politikoarekin zerikusirik ez zuen jendea batu zen taldera; gazteria eta kultura bultzatu nahi genuen jende ezberdina elkartu ginen".

"Hutsetik" hasi behar izan zuten herriko kultur mugimendua sustatzen, horrela azaldu du Salsamendik: "Dena egiteko, sortzeko zegoen. Pentsa, gure herria bera ere udalerri gisa sortu gabe zegoen". Eta bide horretan hasi ziren lehen kontaktuak egiten. Horrela, Tolosako Ekinbide Etxera jotzea erabaki zuten: "Bertako kideak ezagutzera joan ginen, bilerak egin genituen eta beraiek kultur ekintzak antolatzeaz zuten esperientziatik eman ziguten ikuspuntua oso baliagarria izan zen. Eurei esker konturatu ginen Euskal Herriko zein nazioarteko ekintza kulturalak ekarri genitzakeela gure herrira. Izugarrizko laguntza izan zen".

Tolosako Ekinbide Etxeak antolatzen dituen ekintzen artean, garrantzia handikoak izan dira beti, adibidez, abesbatzen jaialdiak. Euskal Herriko zein nazioarteko abesbatzen jaialdia egiten zuten, eta aukera hori aprobetxatuz, jaialdian parte hartzen zuten abesbatzak Lasarte-Oriara ekartzen hasi zen Sendoki: "Azaroko lehen egunetan antolatu izan ditugu abesbatza saioak. Tolosako abesbatzen jaialdian parte hartzen zuten taldeak beste herritara eramaten gu izan ginen lehenak; hasieran, jaialdia irabazten zuen abesbatzak ekartzen genituen, eta gerora, parte-hartzaileak ere bai".

Tolosako Ekinbide Etxearekin harremanetan jarraituz, eurek antolatzen zuten *Titirijai*, Tolosako NazioartekoTxotxongiloen Jaialdia ere herrira ekartzeko ahaleginetan hasi ziren; eta baita lortu ere. 1984. urtean antolatu zuten, lehenengoz, txotxongiloen jaialdia, Lasarte-Orian.

Kontatu dute ikastetxeekin eta bertako ikasle gazteekin egin nahi izan zutela txotxongiloen lanketa, eta halaxe egin zuten: "Herriko ikastetxeetako zein Gipuzkoako ikastetxe ezberdinetako ikasleak etorri ziren gurera. Bi saio antolatzen genituen; bat goizean eta bestea, arratsaldean". Ez dute ahaztu "egun osoko plana" izaten zela: "Astebeteko kultur ekintza izaten zen, oso intentsua, baina oso polita aldi berean".

Haurren artean zuen arrakastaz jabetuta, helduentzako txotxongilo saioak antolatzea erabaki zuen Sendokik. Horrela, Zumaburu eliza azpiko Gizarte Etxean eta Tedoso zineman helduentzako saioak ere egin zituztela azaldu dute Ormazabalek eta Salsamendik. Hamar urtez aritu ziren txotxongilo saioak antolatzen herrian, abenduro.

Bestelako kultur ekintza ugari

Soldaduska garaiak herriko kultur ekintzak antolatzeko zertan izan zaion baliagarria ere azaldu du Salsamendik TXINTXARRI-rekin izandako elkarrizketan. Jakinarazi du baliagarria izan zitzaiola Zarauzko Udal Musika Bandako orduan musikari (gaur egun zuzendari) Iosu Isasti ezagutzeko, eta, haren bitartez, Lasarte-Orian udal musika banden emanaldiak antolatzeko: "Harremana egin genuen, eta urtero-urtero, maiatzean, hiru udal banda ekartzen genituen, hiru igandetan".

Eta horren atzetik etorri ziren baita ere pintura eta marrazketa erakusketak, zumearekin egindako eskulanen tailerrak, eta abar: "Sendokiren ibilbidean, kulturaren edo eskulangintzaren munduan zebilen jendearekin topo egiten genuenean, saiatzen ginen herrian ekintzaren bat antolatzen".

Ez dituzte aipatu gabe utzi nahi izan urte luzez antolatu dituzten bestelako ekintza guztiak ere. Kontatu dute neguan musika klasikoko emanaldiak antolatzen ere aritu direla, baita Gabonetako lehen argiztapenaren antolaketan (Geltoki kalekotik hasita), San Pedro Jaietako kuadrilla Egunean, 750 pezetaren trukean antolatzen zuten bazkaria, eta, uztaileko Santa Ana Eguneko ekintzak ere. Azken ekintza horretan egin ohi den azokarekin aritu dira buru-belarri, udaleko kultura sailaren esku utzi, eta agurra iragarri duten arte.

Udaletxea sortuta, aldaketak

Oso gogoan dute, batez ere udala sortu eta lehenengo urteetan haren aldetik jaso zuten laguntza: "Batez ere hasierako urteetan zorte handia izan genuen; aurkezten genituen proposamen guztiak onartzen zizkiguten. Bazekiten lan txukun eta serioa egiten ari ginela, Gerora ere laguntza handia izan dugu, azken egunera arte".

Udalerria sortu eta udalak bere antolaketa zehaztu ahala, ordea, sail ezberdinetan antolatzen joan zen erakundea: "Gu festak, kirola eta gazteria sailarekin elkarlanean hasi ginen".

Kultur etxea ere martxan jarri zuten, eta, pixkanaka-pixkanaka, Sendokik antolatzen zituen ekintzen antolaketa udala bere gain hartzen hasi zen: "Horrelako egoerak gertatu direnean guk beti egin dugu pauso bat atzera, inolako polemikarik sortu gabe".

Kultur batzordearen bidea, ordea, honaino iritsi da. Berrogei urteko lan eta ibilbideari amaiera ematea erabaki dute. Aitortu dute "nostalgiaz" begiratzen dutela atzera, baina "poz handia" sentitzen dute, gauzak ondo egin dituztela sentitzen baitute: "Herrian errotuta dauden ekintza askoren sustraiak gureak dira, eta hori oso pozgarria da guretzat".

Eskerrak emanaz amaitu dute elkarrizketa: "Komunikabideei, udal-ordezkari guztiei, eta modu batera edo bestera gure ondoan, gu laguntzen aritu direnei eskerrak ematen dizkiegu; zuzeneko harremana, eta ona izan dugu guztiekin. Mila esker guztioi".



2020ko martxotik hona, iazko azaroan atzeman dituzte kasu gehien Lasarte-Orian; guztira, 275. TXINTXARRI

Koronabirusaren intzidentzia altua da

Eremu gorrian dago Lasarte-Oria uztailaren 15etik; intzidentzia-tasa 509,32 da. Datu ofizialen arabera, SARS-CoV-2 birusak 1.862 lasarteoriatar kutsatu ditu, ehun biztanletik ia hamar (%9,8). Horietatik 113 urteko zazpigarren hilabetean kutsatu ditu koronabirusak

Txintxarri

Uztailaren 21era arteko datu ofizialak eskuetan –horiek izan dira aldizkari honek kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik–, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarenak eta Osakidetzarenak, SARS-CoV-2 birusak 1.862 lasarteoriatar kutsatu ditu, herrian bizi diren biztanleen %9,8 –Udalaren datuen arabera, 19.045 pertsona bizi dira herrian–. Ia guztiak osatu dira edo horretan ari dira, baina, tamalez, 23 pertsonak bizia galdu dute koronabirusagatik.

Apirilean eta maiatzean harro-harro zegoen olatua jaitsi egin zen ekainean, baina ostera ere gora egin du uztailean, eta hilaren 21era arte, 113 kutsatze zenbatu dira Lasarte-Orian. Uztailaren 14tik 21era, erdiak baino gehiago: 61 guztira; eguneko, 7,6. Intzidentzia altuko eremuan dago gure herria, gorri kolorekoan; uztailaren 21eko intzidentzia-tasa 509,32 izan zen. Hilaren 15ean sartu zen gune horretan Lasarte-Oria, ia bi hilabete eta gero.

Intzidentzia gehieneko hilabetea, 2020ko azaroa

Orain arteko zenbakiei so eginez gero, 2020ko azaroa izan da intzidentzia gehieneko hilabetea gure herrian; 275 positibo erregistratu ziren, eguneko bederatzi pasatxo (9,2). Oraingoz, beste hiru hilabetetan gainditu du Lasarte-Oriak 200 kutsatzeen langa: 2021eko apirilean eta urtarrilean (248 eta 218) eta iazko urrian (215). Ez dirudi uztaila multzo horretan sartuko denik, baina koronabirusak oldartuta jarraitzen badu, gertu ibili daiteke kopuru definitiboa.

Beterri-Buruntza eskualdeko sei herrietatik bost eremu gorrian daude: Astigarraga, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta. Usurbilen, aldiz, birusaren transmisioa apalagoa da, gune horian baitago. Uztailaren 21ean 31 kutsatze zenbatu zituzten herri horietan: hamabi Hernanin, zortzi Andoainen, lau Urnietan, hiru Lasarte-Orian eta bina Astigarragan eta Usurbilen.

Jarduerak 01:00etan amaituko dira

Mahai teknikoaren proposamenak aztertu ostean, LABI aholku batzordearen mahai politikoak hartutako neurrien berri eman du Iñigo Urkullu lehendakariak. Hauek dira: jarduera ekonomiko, sozial eta kulturalak 01:00etan bukatuko dira (azken asteetan 02:00etan amaitu dira), komertzioetan eta ostalaritza establezimenduetan %35 izango da gehieneko edukiera barrualdean eta maskara erabiltzea "derrigorrezkoa" izango da "jende asko pilatzen den herrigune eta hiriguneetan". Neurri sorta berria uztailaren 24an sartuko da indarrean, komertzioen eta ostalaritza negozioen aforoena izan ezik; hori, astelehenetik aurrera, uztailak 26. Etxeratze agindurik ez du eskatuko Lakuak, baina herritarrei eskatu die bete dezatela 01:00etatik 06:00etara etxean egoteko gomendioa.

Aholku batzordeak aztertu dituen faktoreen artean hauek daude: COVID-19aren Delta aldaerarenak direla atzematen ari diren azken kasuen %75 baino gehiago, "askoz ere kutsatzeko gaitasun handiagoa" duela eta azken hamalau egunetako intzidentzia-tasa 682koa izan dela. Gaur egoera zein den kontuan izanda, Bizi Berri IV planaren bigarren agertokitik hirugarrenera pasa da Euskal Autonomia Erkidegoa.

Willis Drummond talde baionatarrak kontzertua eskaini du kultur etxean. TXINTXARRI

Willis Drummond taldeak emanaldi akustikoa egin du

Talde baionatarrak ordu eta laurden inguruko zuzenekoa eskaini du Manuel Lekuona kultur etxean

Txintxarri

Beste talde askori bezala, pandemiak formatua aldatzera behartu du Willis Drummond. Eserita, akustikoan eta maiz ia ilunpean utzi dituen argi aldaketekin izan bada ere, aretoan zeudenek berdin-berdin gozatu dute lau musikarien lanarekin. Txaloekin argi utzi diete agertokian zeudenei, baita noizean behin abestuz edo dantza eginez ere.

David Perez Sañudok zuzendutako *Ane* filmaren musikaren parte den *Nahita nahi ez* kantarekin hasi dute emanaldia eta haren ondotik, *Zugzwang* azken diskoko kantak aurreko lanetako beste batzuekin tartekatzen joan dira: *Hori dena*, *Bigarren aukera*, *Lurrunaren atzean*, *Gaztetasuna eta zahartasuna*, *Noiz da gero?*...

Motz egin zaie kontzertua bertaratu direnei. Ordubetea urratua zutenean, amaitzeko ordua zela jakinarazi dietenean, atsekabe hasperenak entzun baitira. Txaloen ondoren, biserako itzuli dira elkarren ondoan, eta ilaran eseri dira agertoki aurrean agur berezia egiteko.

TXINTXARRI

Musikaz betetako kasetea

Kale antzerkia bultzatuz egitasmoaren barruan, Eidabe talde bizkaitarrak *Gora kasete!* haur ikuskizunaren emanaldia egin zuen uztailaren 16an Oriarteko jolastokian. Nagusiki, 1980 eta 1990 hamarkadetako musikaz betetako zinta prestatu zuten haur nahiz helduen gozamenerako: Kortatu, Negu Gorriak, Queen, The Proclaimers eta beste askoren abestiak sartu zituzten kasetean.

Akusatuak ez dira epaiketaz libratuko

Koronabirusak baldintzatuko du aurtengo Santa Ana eguna, iazkoa bezala. Edonola ere, egitaraua prestatu dute Lasarte-Oriako Udalak, Ttakun Kultur Elkarteak eta eragileek: meza, dantza emanaldia eta parodia. Uztailaren 26an egingo dira ekintzak, astelehenez

Txintxarri

Angustias Ezezkoalde Ezetzapronto eta Pantxo Zilborraundi Niriezikutu akusatu ditu fiskaltzak aurten, Lasarte-Orian egindako maltzurkeriengatik eta triskantzengatik. Koronabirusak ekitaldiak antolatzea zaildu duen honetan, itxaropena zuten suaren garretatik libratzeko, baina ez da horrela izango, egoerara egokitutako egitaraua prestatu dutelako Lasarte-Oriako Udalak, Ttakun Kultur Elkarteak eta herriko zenbait eragilek.

Santa Ana eguna uztailaren 26a da; aurten, astelehena izango da. Ekintzak egun horretan burutuko dituzte, eta hauek izango dira: 11:00etan, Santa Ana eguneko meza izango da Ama Brigitarren komentuan; bukatu eta gero, 12:00etan, Erketz EDTko dantzari finek Santa Ana karkaban (Kale Nagusia 26, San Pedro eliza parean) dantzatuko dute; eta gauean, Manuel Lekuona kultur etxean, urtea umorez errepasatuko dute parodiako aktoreek, 22:00etatik aurrera.

Aurtengo parodia ere Manuel Lekuona kultur etxean izango da. TXINTXARRI

Parodia ikusteko sarrerak

Manuel Lekuona kultur etxeko edukiera mugatu egin behar izan du udalak, COVID-19aren eraginez. Emanaldiaz gozatzera joan nahi dutenek kultur etxeko leihatilan hartu beharko dituzte txartelak, 10:00etatik 13:00era. Herritarren bat tokirik gabe geratuko balitz, *streaming* bidez ikusi beharko luke parodia; udala arduratuko da zerbitzu hori eskaintzeaz.

Herritar askok lan eskerga egin dute uztailaren 26ko parodia prestatzeko. Lantaldea Pablo Barriok, Amaia Tejeriak, Mari Karmen Ormazabalek eta Xabier Matxainek osatu dute. Iaz bezala, esketx batzuk zuzenean eskainiko dituzte aktoreek kultur etxean, eta aurrez grabatutako beste batzuekin uztartuko dituzte.

Zortzi esketx eta epaiketa izango ditu aurtengo parodiak. Gidoiak Pablo Barriok (sei esketx eta epaiketa), Erik Arzallusek (esketx bat), eta Intza Alkainek eta Bea Egizabalek (esketx bat bien artean) egin dituzte. Eszena horietan guztietan aktoreek parte hartu dute. Hauek dira: Elena Gomez, Olatz eta Amaia Iriberri, Miren eta Josu Egizabal, Oscar Garcia, Edorta Hornillos, Puri Fadrique, Ximon Villalobos, Ander Prado, Alvaro Marcet, Miren Zaldua, Julen eta Beñat Egizabal, Erik Arzallus, Iñaki Etxegia, Aiora Toquero, Nora Gallardo, Intza Alkain eta Bea Egizabal.

Arestian esan bezala, esketxetako batzuk aurrez grabatuak izan dira, eta Ione Zabala, Isa Fernandez de Agirre, Cesar Marcos eta Jon Altuna arduratu dira horretaz. Parodia hasi aurretik, antolatzaileek iragarri dute aitortza berezi bat egingo dutela. Omenduarentzat bertsoa idatzi du Lierni Rekondo bertsolariak. Bandoa, berriz, Jokin Ayerregaraik idatzi du, eta David Francok egingo ditu aktore lanak, zuzenean.

Santa Anako azoka, Okendon

Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, Santa Anako artisautza azoka egin zuten uztailaren 18an. Aspaldiko partez, salmenta postuak eta jendea bueltatu dira Okendo plazara; goiz eta arratsalde, herritar ugari bertaratu zen 40 salmenta postuen eskaintza ikustera

Ehoziri lanean duten maisutasuna erakutsi zuen emakume talde batek TXINTXARRI

Maitane Aldanondo

Santa Ana Egunerako zortzi egun falta baziren ere, uztaileko azken aurreko igandea izan zen joandakoa. Egutegiko zenbakia dena dela ere, data horrek artisautza azoka ekarri ohi du Lasarte-Oriara. Pandemiak behartutako iazko etenaldiaren ondoren, Sendoki elkartearen lekukoa hartuta Udalak 36. edizioa antolatu zuen. Arrazoi beragatik, Okendo plazan ez dira halako ekimenak egin azken hilabeteetan, azokak, ordea, ohiko kokalekua mantendu du; Antonio Mercero gunearekin osatzen duen zabalgunea hartuta.

Landareak, arropa, zapatak, pilotak, musukoak... 40 postuk osatu zuten igandeko eskaintza, eta eguraldi ona lagun, ikusi, dastatu eta erosi dozenaka lasarteoriatar ibili ziren goiz eta arratsalde. 10:00etan abiatu zuten azoka eta eguerdi partean lagun ugari zebilen mahai artean begira. Kopurua gora-behera, egun osoz hala mantendu zen, 20:00etan amaitu zuten arte.

Salmenta postuen inguruan hesia jarri zuten azokan zegoen herritar kopurua zaintzeko. Sarrera-irteera norabideak zehaztuta, eskuak garbitzeko gela eskuragarri zegoen sarbide bakoitzean. Halaber, antolatzaileek gunean zeuden guztiek musukoa uneoro jantzita zutela ere zorrotz kontrolatu zuten. Hain zuzen ere argazkia egiteko jaitsi zuten zurginei behera tira egin bezain pronto ohartarazi zieten aho aldea estali behar zutela. Egoera ikusita, ordea, irudia egiteko tartetxoan kentzeko baimena eman zieten.

Erosi eta ikusi

Intereseko zerbait topatuko zuten denek artisauek ekarritakoen artean, nahiz eta gero diru zorroa ez ireki. Saltzaileren bat kexu zen beste urteetan baino giro lasaiagoa zegoelako, baina salerosketak egin zituzten, eta poltsa beteta bueltatu zen etxera herritar bat baino gehiago. Zer erosi erabakitzerakoan, hautua bereziki zaila izan zuten jatea gustuko dutenek, eskaintza zabala bezain atsegingarria baitzen: ogia, pastelak, erroskillak, hestebeteak, txorizoa, gazta, garagardo artisaua...

Azoka ez zen salmentara mugatu. Ohi bezala, zenbait eskulanen erakustaldiak ere egin zituzten. Hari asko erabili zuten ehoziri lanean aritu zen emakumeek. Hatzak nekatu arte jo eta su aritu ziren iaiotasunez. Elkarri loreak botata, batek bestearen gaitasuna nabarmendu bazuen ere, denen trebezia txalogarria zen. Egur zati batetik irudi ikusgarriak atera daitezkeela ikusteko aukera ere izan zuten bertaratutakoek; Zurmailu elkarteko kideek, behintzat, hala egin dezaketela erakutsi zieten.

Gainerakoan, San Pedro elizaren maketak erakarri zuen begirada gehien. Albotik igaro zen ia edonork begiratu zuen barrualdera leihoren batetik, eta, nola ez, argazkiren bat egin ere. Horrez gai, haurrek ere izan zuten zer egin. Ez aspertzeko, txoko batean jarritako mahaietan eskulanak egiteko aukera izan zuten bizpahiru begiraleren laguntzarekin. Koloretako irudiak, zotzak erabilita egindakoak, artisau jokoak, globoekin jolasa eta loreak. Goizean lasaiago ibili baziren, arratsaldean dozena bat haur batu ziren eskulanak egiten.

Jaki eskaintza zabala izan zen eta postu horiek erakarri zuten jende gehien. TXINTXARRI

San Pedro elizaren maketak bertaratutakoen jakin-mina piztu zuen. TXINTXARRI

Aurreko urteetan baino jende gutxiago bazebilen ere, herritar ugari ibili zen batetik bestera azokako postuen artean. TXINTXARRI

Haurrek txoko batean eskulanak egiteko aukera izan zuten azokak iraun artean. TXINTXARRI

Hamaika abentura

Ttakun KEren udako txokoez eta udalekuez gozatzen

Ttakun Kultur Elkartea udako txokoak eta udalekuak egiten ari da uztailean zehar. Koronabirusak eragindako egoerari aurre egin, eta indarrean dauden neurri guztiak kontuan izanda, egitarau oparoa prestatu dute, herriko haur eta nerabeen gozamenerako. Uztailaren 30era arte, hamaika abentura eta jarduera burutzen ari dira, Lasarte-Orian zein kanpoan, Gipuzkoako eta Arabako herri batzuetan, hain justu.

Surfa, ur-jolasak, mendi irteerak, kamisetak tindatzea, Atsobakarreko egoiliarrei bisita, Porrotx pailazoarekin eta Josu Txapartegi *Txapas*-ekin kantuan eta dantzan egiteko goiza, barrakak, bideoklipak, hamaika jolas desberdin... Udako txokoetan eta udalekuetan parte hartzen ari diren gazteek ez dute aspertzeko astirik izan orain arte, eta gozatzeke geratzen zaien astean ere ez da hala izango. Elkarri agur esan aurretik, azken festa egingo dute uztailaren 30ean.

Porrotx pailazoa eta Josu Txapartegi *Txapas* Oriarte Landaberriko patioan izan ziren uztailaren 22an. Ka

Buruntza mendira igoera, surf saioa Donostian, kamisetak tindatzea... Aspertzeko astirik ez dute izan. TXINTXARRI

Ez dira asko izan, baina uztailean zehar egun bero batzuk egin ditu. Horietako zenbaitetan ur-jolasak egin ditu

22an. Kantuan eta dantzan egin zuten udako txokoetako gazte eta begiraleekin. TXINTXARRI

k egin dituzte udako txokoetako haurrek, freskatu bitartean gozatzeko. TXINTXARRI

Daniela Pirataren eskifaiako kide batzuek Atsobakar egoitzako egoiliarrak bisitatu zituzten uztailaren 20an. TXINTXARRI

Udalekuetako DBH1 mailako taldea Albenizen (Araba) dago. Uztailaren 26an itzuliko dira, astelehenarekin. TXINTXARRI

Udalekuetan parte hartzen ari diren LH 3. eta 4. mailako gaztetxoek egonaldi ederra egin dute Astigarragan. TXINTXARRI

Donostia Arraun Lagunak, Euskadiko txapeldun

Aiora Belartieta kide duen traineruak lehenengoz lortu du Euskadiko txapelketa eta Euskadiko zein Gipuzkoako txapeldun da. Euskotren Ligan, Getxoko bandera eskuratu du berriki, eta sailkapeneko lehen postuan da, Orio Orialkirekin berdinduta

Txintxarri

Donostia Arraun Lagunak traineruak balentria ederra lortu zuen uztailaren 21ean. Gipuzkoako txapelketa lehenengoz irabazi ostean, Euskadiko Traineru Txapelketan nagusi izan zen eta Lugañeneko kideek Lekeitiotik Donostiara eraman zuten taldearen lehen Euskadiko txapelketako bandera.

"Egun garrantzitsua izan zen, lehen aldiz irabazi baitugu Arraun Lagunakeko neskek Euskadiko txapelketa. Gainera, aurten Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabaztea poztasun eta indar handia ematen digu ligan aurrera jarraitzeko", adierazi digu Lugañeneko kide Aiora Belartieta herritarrak.

Herritarrak oraingoan lurretik ikusi behar izan zuen lehia, baina zirraraz bizi zuen.

Ohorezko txandan lehiatu zen Donostia Arraun Lagunak, Orio Orialki, Deusto eta Ondarroaren aurka.

Gipuzkoako bi traineruek, Donostia Arraun Lagunak eta Orio Orialkik, hasieratik hartu zieten aurre Bizkaiko ordezkariei. Bien arteko lehia handia izan zen lehen luzean. Hala ere, Lugañene aurretik zihoan eta luzearen bigarren zatian pixkanaka tartea ireki zuen.

Donostia Arraun Lagunakeko kideak, Euskadiko txapelketako banderarekin. EUSKO LABEL LIGA

Lehena iritsi zen ziabogara Orio baino bost segundo beranduago.

Bigarren luzean, gainera, aldea handituz joan zen eta momenturen batean, hamar segundoko aldea izan zen Lugañeneren eta Orioko traineruaren artean.

Helmugara iristean pozez eztanda egin zuten Donostiako traineruko kideek.

Lehen txandan, berriz, Intza Fernandez kide duen Hondarribiak ezin izan zuen garaipena eskuratu.

Hiru ontzik bakarrik parte hartu zuten txanda honetan, Zumaiako arraunlari batek positibo eman baitzuen. Beraz, Tolosaldea eta Donostiarra Lacturale izan zituzten arerio berdeek.

Donostiarrak egin zuen denborarik onena hirugarren postua eskuratuz. Nahiz eta bere txandan Hondarribiak bigarren postua lortu, ehuneko gutxi batzuengatik sailkapen orokorreko bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

Gizonezkoen lehian, Gaizka Ormazabal kide duen San Pedro Ohorezko mailako borrokan egon zen. KAE1eko ordezkari bakarra izan zen Libia eta nabaritu zen. Lan ederra egin arren, azken postuan amaitu zuten lehia.

Euskadiko txapelketa hori baino lehen, ordea, Euskotren ligako asteburuan batean kale, bestean bale egin zuen Donostia Arraun Lagunakek. Orion hirugarren izan zen eta Getxon bandera eskuratu zuen. Eta berriro ere Orio Orialkirekin berdindua dago sailkapeneko buruan.

Hondarribia bigarren

Hondarribia Bertako Igogailuakek, berriz, bere indarra erakutsi zuen. Bi estropadetan bigarren postuan eskuratu eta sailkapenean gora egin du. Egun hirugarren postuan da Donostiarrarekin 11 puntura berdinduta.

Larunbatean, uztailaren 17an, Orioko XXI. Emakumezkoen Estropada - ORIO Kanpina IX. Bandera jokatu zen eta Orio Orialkik etxean utzi zuen bandera. Herrikideak dauden bi eskifaiak, Arraun Lagunak eta Hondarribia Bertako igogailuak, bigarren postuarengatik lehiatu ziren eta berdeen alde egin zuen patuak.

Intza Fernandez Hondarribia Bertako Igogailuakeko kideak jakitera eman digunez, asteburuan estrategia aldaketa egin zuen eskifaiak. "Estropada lehiatzeko beste estrategia bat erabiliko zela erabaki zuten eta asteko entrenamenduak horri begira egin genituen. Larunbatean proba egin eta ziur ginen ongi egingo genuela. Dena ematera atera ginen eta ongi joan zen".

Lehia handia izan zen estropada hasieratik. Lau ontziak berdintsu atera ziren, baina lehen luzean aurre hartu zuen Oriok eta ziabogara lehena iritsi zen.

Atzean Hondarribia Bertako Igogailuak eta Donostia Arraun Lagunak traineruen arteko borroka handia izan zen. Hondarribiak eraman zuen saria. Ziabogan bigarren iritsi eta bertan lortutako tartea mantentzea lortu zuen bigarren luzean.

"Bi egunetan Hondarribiak maila handiko traineru bat dela erakutsi du", onartu du Lugañeneko tostako kide Aiora Belartieta herritarrak.

Euren jardunari buruz, "gure sentsazioak traineru barruan ez ziren onak izan baino estropada ez zen gaizki atera. Ikusi da akats txikiek asko baldintzatzen dutela" adierazi du Belartietak.

Bandera berria

Bestelakoa izan zen igandean Getxoko Estropaden XIII. Ikurriñeko egoera. Donostia Arraun Lagunakek errebantxa hartu zuen eta Donostiara joan zen bandera.

Lau traineruak batera egin zituzten lehen metroak baina pixkanaka Lugañeneko eskifaiak tartea ireki zuen. "Lehenengo paladatik sentsazio onak eduki genituen estropadan zehar eta konfiantzaz jarraitu genuen aurrera", adierazi du Lugañene eskifaiako kide Belartietak.

Era horretara, ziabogara lehenengo iritsi zen Hondarribia atzean bost segundotara zuela. Bigarren luzean, gainera, errenta handitu zuen eta Hondarribiak baino zazpi segundo lehenago zeharkatu zuen helmuga.

"Ziabogatik lehena ateratzeak mentalki indar handia ematen du gogor aurrera jarraitzeko. Burua hotz mantentzea garrantzitsua da ere egoera horietan", onartu du Donostia Arraun Lagunakeko kideak.

Intza Fernandezek azaldu duenez, "asteburu honetan ikusi dugu zer egin estropadan ongi joateko eta orain gorakoa egiten saiatuko gara".

Buruntzazpi eskolako kadeteek, asteburu ederra

Adur Tapia eta Eneko Aranguren lehen hamarren artean sailkatu dira Azpeitiko San Inazio sarian

Txintxarri

Errepideko denboraldia aurrera doa eta kadeteek bi hitzordu garrantzitsu izan zituzten uztailaren 17an eta 18an: Ordiziako Chapel Gorri proba eta Azpeitiko San Inazio saria. Buruntzazpi txirrindularitza eskolako Adur Tapia eta Eneko Aranguren kideek parte hartu zuten bietan.

Larunbatean, uztailaren 17an, Chapel Gorri proban zehar tropela tinko mantendu zen arren, helmugatik 27. kilometrora hiruko bat ihesi atera zen. Abaltzisketako mendate igotzean, ihesaldian zegoen Gorka Corresek erritmoa aldatu eta atzean utzi zituen bere arerioak. Gainera pelotoia luzatzen joan zen eta taldetxo bat sortu zen iheslariak harrapatu nahian, bertan zegoen Buruntzazpiko Adur Tapia gaztea.

Talde horrek hirugarren iheslariarekin bat egin zuen eta azken kilometroan, hirugarren postua lehiatzeko prestatu ziren. Tapiak jo zuen esprinta, baina ezin erritmoa ongi mantendu eta 5. postuan amaitu zuen. Bere taldekide Aranguren hamabosgarren helmugaratu zen.

Tapia eta Aranguren, Azpeitiko helmugara iristen. UZTARRIA

Azpeitiko San Inazio proban ere lehian ikusi ahal izan genituen Buruntzazpiko kadeteak. Eraso ugari izan ziren eta horietako bat Buruntzazpiko Tapiak egin zuen, baina tropelak ongi erantzun zuen horiek zapuzten.

Azken kilometroan, berriz, Jokin Ascarayk eta Nikolai Asensiok ihes egin zuten eta pelotoia luzatu zen. Jarraitzaileen lehen taldean kokatu ziren Buruntzazpiko kadeteak, esprinta egin eta Tapia zazpigarren eta Aranguren zortzigarren iritsi ziren helmugara.

Nahia Zudaire, Tokioko Joko Paralinpikoetara

Otsailean, Bartzelonan eskuratutako gutxieneko B markak eta Funchal, zein Berlinen egindako lanak Espainiako selekzioko zerrendan egotea balio izan dio. GIF Absolutuen Kontrol txapelketa jokatu da uztaialren 17an eta 18an eta bere markak hobetu ditu

Txintxarri

Kirol Kontseilu Gorenak (CSD) eta Espainiako Paralinpiar Batzordeak (CPE) Tokioko Joko Paralinpikoen Espainia ordezkatuko duten kirolarien zerrenda jakitera eman zuten, uztailaren 14an. Zerrendan, besteak beste, Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire igerilari gaztea dago.

Zudairek 400 metro libre probako B gutxienekoa lortu zuen otsailean, Bartzelonako Igeriketa egokitutako nazioarteko sarian. Funchaleko Europako Txapelketan zein Berlingo World Seriesetan lortutakoek emaitzek behin betiko zerrendan egoteko balio izan diote Zubietako igerilari gazteari.

Kontrol txapelketan parte hartu zuten Buruntzaldea IKTko igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Markak hobetzen

Bien bitartean, uztailaren 17 eta 18ko asteburuan, Zudairek eta Buruntzaldea IKTko Eneko Elizasu, Unai G. Somovilla eta Nora Imaz taldekideek GIF Absolutuen Kontrol Txapelketa lehiatu zuten, Irungo Azken Portu igerilekuan.

Nahia Zudairek 400 m. libre eta 800 m. libre probetan parte hartu eta bietan marka pertsonalak berriak lortu zituen. 400 metroko proban, 5:02,36 eta 800 metrokoan, berriz, 10:35,72 egin zituen. Gainera, pasean 200 m. libreko marka ere berritu zuen, 2:20,38. Era honetara, igeriketa egokituko S8 klasean taldeko 3 errekor berri ezarri zituen.

Buruntzaldea IKTko prestatzaileak adierazi duenez, "lehiaketa hau amaituta Tokioko Paralinpiar Jokoei begira dago Nahia, bertan lehiatzeko azken entrenamenduetan buru belarri sartuta".

Hala ere, ezbehar batekin hasi zen lehiaketa Buruntzaldea IKTko kideentzat.

Lehiaketan parte hartzeko zen Aintzane Sarobek beroketetan agur esan behar izan zion denboraldiko azken txapelketari. Zoritxarreko gertaera medio, kolpe handia jaso zuen belaunean eta ezin izan zuen bere probetan igeri egin.

Trantze txarra igarota, Buruntzaldea IKTko gainerako igerilariek euren markak hobetu zituzten. Emaitzarik esanguratsuenak Unai G. Somovillak eskuratu zituen.

Bular estiloko hiru probetan parte hartu zuen gazteak eta hiruetan bere markak nabarmen ondu zituen. 100 metroko proban egin zuen balentriarik handiena, 1:12,39 eginez; 50 metroko proban marka berria 31,89an ezarri zuen eta 200 metro proban, aurreko marka hiru segundotan hobetu zuen, 2:37,10. Hiru markak Buruntzaldea IKTko absolutu mailako errekor berriak dira.

Espainiako txapelketatik at

Nora Imazek ere bere markak berritu zituen proba luzeetan. Estilo libreko 800 m. eta 1500 m. probetan lehiatu zen; 9:23,92 eta 18:09,03 markak egin zituen, hurrenez hurren.

Apeztegiak nabarmendu duenez, biekin Espainiako Udako Junior Txapelketarako sailkatuko litzateke Imaz. Tamalez, aurten rankingeko hamabost hoberenek bakarrik parte hartu ahalko dute txapelketan eta Buruntzaldea IKTko igerilaria 1.500 metro probako sailkapeneko 24. postuan da eta 800 m. proban, aldiz, 21.a da.

Azkenik, Eneko Elizasuk bere marka onenetatik gertu ibili zela nabarmendu du Apeztegiak. "Marka onak egitea lortu zuen lehiatutako probetan. Lehiaketa aurreko azken hilabete eta erdian sorbaldako arazoekin izan da, eta azken astean zehar arazoa aritzea lortu duen arren, entrenamenduan eragin dio eta ez da formaz nahi bezain ondo iritsi," adierazi du.

Horrez gain, denboraldia amaituta, Buruntzaldea IKTko prestatzaileak igerilari guztiak zoriondu nahi ditu "egindako denboraldiagatik, egindako lan guztiagatik eta erakutsitako konpromisoagatik".

Era berean, ahalik eta errekuperazio azkarrena eta onena opa nahi die Sarobe eta Elizasuri.

MARKAK HOBETUZ BUKATU DUTE DENBORALDIA BURUNTZALDEA IKT-KO IGERILARIEK

Urdanpilleta, Zikuñaga Papelera torneoko finalaren bila

Manterola lagun, Martin eta Alegria izango ditu arerio finalerdian. Intzako gainerako pilotariak ezin izan dira sailkatu

Txintxarri

Hernaniko Zikuñaga Papelera torneoko finalerdiak eta finala jokatuko dira hurrengo egunetan eta finalerdietan herritar bakarra izango da aurten, Peru Urdanpilleta gaztea.

Senior mailan, Jon Pello Artetxek ezin izango du iazko txapela berretsi. Uztailaren 15ean izan zen jardunaldian. EPLEko Urmeneta eta Zazpi Iturriko Beloki izan zuten arerio Artetxek eta EPLEko Arangurenek.

Hasieratik arerioen menpe egon ziren. Zehazki, Urmeneta aurrelariak partidaren kontrola eraman zuen eta ez zien Artetxe-Aranguren bikoteari aukerarik eman. Ondorioz, 18-10 gailendu zen Urmeneta-Beloki bikotea eta Artetxe txapelketatik kanpo geratu zen.

Zorte bera izan zuen Intzako 2. mailako kadete bikoteak ere. Uztailaren 17an, larunbatearekin Diaz de Gereñuk eta Elosegik Añorga taldeko Arruti eta Zazpi Iturriko Plazaola izan zituzten aurrez aurre. Lasarteoriatarrek ezin izan zuten arerioa garaitu, 18-13 galdu zuten.

Artetxe (bigarrena eskuinetik), partida jokatu baino lehen. RUFINO REKALDE

Txanponaren beste aldea Peru Urdanpilleta dugu. Uztailaren 14an, Urdanpilletak eta bere bikotekide Manterolak Hernani pilota elkarteko Martin eta Alegriaren aurka jokatu ziren.

Nagusitasunez irabazi zuten 6-18 eta bere sailkapen multzoko bi partidak irabazita final-erdikoetarako sailkatu zen zuzenean.

Aste honetan jokatu diren partidek erabaki dute euren arerioa eta berriro ere, Martin eta Alegria izango dituzte aurrez aurre.

Eguzki Areto Futbola taldearen izena ematea martxan da

Ekain amaieran Eguzki Areto Futbola taldeak Kirol Eskolari amaiera eman zion. Ezohiko ikasturtea amaituta, orain 2021-2022 denboraldira begira taldeak osatzen ari da Eguzki.

Horregatik, areto-futbolean trebatu eta jokatu nahi duten 2003 eta 2013 urte artean jaio diren haur eta gaztetxoei dei egiten die izena emateko. Inskripzioa egin edo informazioa eskuratu nahi dutenek hiru modu dituzte: taldeko sare sozialak (Facebook edo Instagram: *@eguzkiaretofutbola/* Twitter: *@eguzki*), *eguzkiaretofutbola@outlook.com* helbide elektronikoa edo 699 42 02 39 telefono zenbakia.

Maialen Chourraut, Tokioko kanalean entrenatzen. BAT BASQUE TEAM

Chourraut, hirugarren dominaren bila

Tokioko Joko Olinpikoei hasiera emango zaie ofizialki uztailaren 23an eta bertan izango da Maialen Chourraut herritarra. 2016an Rioko Jokoetan piraguismoko eslalon modalitatean urrezko domina eskuratu zuen eta orain ere borrokan egotea espero du

Txintxarri

Iritsi dira Tokio 2020 Joko Olinpikoak. Urtebeteko atzerapenarekin bada ere, Japoniako hiriburua kirolariz bete da. Futboleko lehia egun batzuk lehenago hasi den arren, uztailaren 23an egingo da hasiera ekitaldia. Bost urtez lanean egin ostean, kirolariek euren onena emango dute dominak eta marka onenak eskuratzeko. Horien artean izango da, Maialen Chourraut herritarra.

Eskarmentuko kirolaria dugu piraguista da herritarra. 38 urteko kirolari herritarrak slalom K1 mailako nazioarteko txapelketa ugaritan parte hartu du. Maila gorenean lehiatu da eta hamaika sari batu ditu, bi domin olinpiko horien artean, urrezkoa eta brontzezkoa.

Izan ere, Maialen Chorrautek bere laugarren Joko olinpikoak baititu Tokio 2020koak.

2008an izan zen estrainekoz Joko Olinpikoetan, Pekinen. Ilusio handiz joan zen herritarra, baina epaileek ate bat igaro ez zuela adostuta, hamaseigarren postuan amaitu zuen lehia.

Ederki kendu zuen arantza hurrengo Jokoetan. Londres 2012an brontzezko domina jantzi zuen eta 2016an Rioko Joko Olinpikoetan podiumeko gorenera igo zen herritarra.

Lehiaren zain

Bide luzea egin du herritarrak eta lasai joan da bere laugarren Joko Olinpikoetara.

Uztailaren 8an, Tokiora iritsi zenetik lehiaketarako prest egoteko lanean da K1 mailako dominaduna. Piraguistarentzat kanalera eta Tokion egiten ari den berora moldatzea ezinbestekoa da lehiaketan bere onena emateko.

Uztailaren 25ean, igandean, izango du lehen proba Maialen Chourraut herritarrak, sailkapen proba.

Gaindituz gero, uztailaren 27an, asteartearekin, final-erdiak eta finala jokatuko lituzke.

Domina zail

Duela bost urte bezala, podiumean egotea amesten du Lasarte-Oriako palistak. Argi du, ordea, oso zaila izango dela.

Egun rankingeko zazpigarren postuan da Atletico San Sebastianeko kidea eta Jessica Fox da faborito nagusiena. K1 mailan eta C1 mailan lehiatuko da australiarra eta indartsu agertu da aurreko hilabeteetan jokatu diren hitzorduetan.

Baina edozer gerta liteke jaitsiera batean eta herriko kirolariaren aburuz hamabost palistek dute aukera dominaren bat lortzeko. Foxez gain, Corinna Kuhnle austriarra, Ricarda Funk alemaniarra, Kimberley Woods ingelesa, Luuka Jones zeelandaberritar edo Ana Satila brasildarra dira Chourrauten ahotan dauden izenetako batzuk.

Chourrauten entrenatzaile eta bikote Xabier Etxanizek nabarmendu duenez, "kanala indartsua da eta urak mugimendu handia izan dezake. Gogorra izango da lehia".

Lehia handia aurreikusten da beraz K1 mailan. Lasarteoriatarrak bere onena emango du jaitsiera bakoitzean.

Iazko uztailean TXINTXARRI-ren 1.511. zenbakian argitaratutako elkarrizketan Chourrautek beraz aipatu legez, "helburua ahalik eta gauzarik politena egitea da. Eta jaitsiera polit batekin, dominetan egoteko aukera era izango genuke."

Bidea ez erraza

COVID 19ak eragindako bost urteko ziklo olinpikoa, ordea, ez da erraza izan Lasarte-Oriako kirolariarentzat.

Bertigoak, saihets-hezur baten haustura, material aldaketak, senitarteko baten galera... iaz egindako elkarrizketan guztia azaldu zuen olinpiar dominadunak.

Eta azken bi urteetan, gainera, COVID-19ak eragindako egoerari aurre egin behar izan dio. Egutegi zehatz baten faltan, antolatu diren lehiaketa gutxietan parte hartu du eta prebentzio modura, batzuetara ez aurkeztea ere erabaki dute. Europako txapelketa, esate baterako.

Ezin bidaiatzea ere zailtasun bat izan da. Iaz La Seu D'Urgell utzi eta Donostiara itzuli zen herritarra. Donostian, Bidasoa ibaian eta Pauen entrenatzen ari da eta mugikortasun murrizketek baldintzatu dute bere jarduna.

Tokiko kanalean ere lan egin ezin izan duenez, Paris 2024 Joko Olinpikoetako kanalean entrenatu da herritarra.

Paris eta Tokioko kanalek dituzten antzekotasunarengatik aukeratu zuten Vaires-sur-Marne kanala eta bertan findu du bere prestaketa.

Hala ere, ez da guztia txarrerako izan. Aldaketa teknikoak egin eta horiek bereganatzeko baliatu zuen itxialdia herritarrak eta bere etorkizunari buruz ere hausnartu zuen.

Igandetik aurrera, bost urte hauetan eta, batez ere, azken urtean egindako lan guztia gauzatzeko hitzordua izango du herritarrak. Bere helburua lehen postuetara eramango duen "jaitsiera polita" lortzea izango da.

Mendi-aterpetxeak eta ostatuak, igoeren abiapuntu bikainak

'Ascensiones desde refugios y albergues de montaña' liburuan, 27 ibilbide batu ditu Txusma Perez Azacetak

Txintxarri

Liburu dendetara iritsi berri da Txusma Perez Azacetaren azken lana, *Ascensiones desde refugios y albergues de montaña*. Sua edizioaren Euskal Herria Bildumako azken zenbakia da herrian bizi den legazpiarrak argitaratutakoa. Hitzaurrea Koldo Aldazek idatzi du.

Bortziri, Belagua edo Linzako mendi-aterpeak, Urbiako Fonda, Urbasako kanpina... mendi-aterpetxeak eta ostatuak abiapuntu dituzten hogeita zapi ibilbide bildu ditu mendizale eta idazleak bere lan berrian.

Liburuaren aurkezpen fitxan aipatzen den modura, Euskal Herriko mendi-ostatu eta aterpetxeak aukera bikaina dira igoera politak egiteko eta, aldi berean, naturaren erdian mendi-giroaz gozatzeko.

Era honetara, aterpetxe horietan gaua egin ostean, ikur diren Gorbeia, Joar, Erlo, Kartxela edo Auñamendi mendi tontorretara igotzeko proposamenak egiten ditu Perez Azacetak. Ez hori bakarrik, natura bere gorenean erakusten duten parajeak ere, hala nola, Bonete de San Tirso, Otsogorrigaña, Jorrios edo Aitzulo aurkezten ditu liburuak dituen 160 orrialdeetan zehar.

Liburua egiteko lagunez inguratu da Perez Azaceta eta horregatik, argitaratutako hainbat igoeretan lagun izan eta abenduan zendu zen Antxon Burcio mendizale eskaini nahi izan dio lan berria.



Liburuaren portada. SUA EDIZIOAK

KOMIKIA



Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943 37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 23	DE MIGUEL
LARUNBATA, 24	DE ORUE
IGANDEA, 25	DE ORUE
ASTELEHENA, 26	LASA
ASTEARTEA, 27	GIL
AZTEAZKENA, 28	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 29	URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

***URTE OSOKO GUARDIAK* APP-A eskuragarri app store edo android marketen**
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

ESKUTITZA

Pardelak birziklatzeko ordua heldu da

JULEN BEGIRISTAIN BAZTAN

"Pardelak eta higiene produktuak zabor bilakatzen ditugun emergentzia klimatikoko garai hauetan, pausu bat aurrera egiteko ordua heldu da. Gainera, prest gaude horretarako. Gipuzkoan bada Birzitek deituriko empresa bat Goierrin, pardelak eta higiene produktuak birziklatzeko gaitasuna duena. Teknologia eta ezagutza baditugu, baita lehengaia ere, zeren zain gaude?

Gipuzkoan 20.000 bat tona hondakin suposatzen dute pardelek eta higiene produktuek. Hondakinak ondo bereiztu eta gero geratzen den errefuxaren %70 direlarik produktu hauek. Pausu hau emateak mundu mailan erreferentzi bat piztea litzake ere. Geure burua erreferente bezela nabarmentzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere baitan birziklapenaren Kluster bat dauka. Bertan birziklapenarekin zerikusia duten enpresen multzo batez osaturik dago. Tartean Birzitek. Kluster hau 2016an sortu zuten eta beraien hitzetan I+G+B sustatu nahi dute eta hondakin politiketan eragin, berrerabilpen eta birziklapen ereduak sustatuz.

Honi gehitu behar zaio udalerri askotan produktu hauek bereizita jasotzen direla, mankomunitateka herri kopuru hauetan jasotzen dira: Sasietan (16 herri), Tolosaldea (4), Urola Erdia (1), San Marko (3) eta Debagoiena (2)

Beraz ideia badaukagu, teknologia eta gaitasuna baita ere, lehengairik ez da falta eta bilketa bereiztua ere egiten da. Orduan, zergatik ez da abian jartzen pardel eta produktu higienikoen birziklatzea?

Gai honek berebiziko garrantzia du eta iruditzen zaigu GHK-k (hondakinen kontsorzioak) bere kargu hartu behar duela prozesu honen gidaritza eta exekuzioa. Herritar askok ondo jokatzen dute hondakinen bereizketaren kasuan eta haratago joan nahi dute pardelak ere birziklatuz. Gizartearen eskaera bat da. Zerbitzu honek eskeiniko lukeen lorpen gehigarri hori pizgarria da Gipuzkoarentzat zein bere herritarrentzat, norabide onean beste urrats bat. GHKri prozesu honen berehalako funtzionamendua abiatu dezan eskatzen diogu.

BABES BILA:
Gipuzkoako ingurumen diputatuak gai honen inguruan adierazi dadin sinadurak jasotzen gaude osoigo.com plataformaren bidez. Izena eman eta ondorengo estekan babesa eman behar da. 500era iristean publikoki erantzungo digu. Eskerrik asko.

OHARRA

Biyak Bat elkarteko jardueretan izena ematea martxan

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak jakinarazi duenez, egoitzak eskaintzen dituen jardueretan izena emateko epea ireki da. Jarduerak zunba, yoga, lerroko dantzak, aretoko dantzak, sevillanak, memoria, gimnasia eta eskulanak dira.

Egoitza irekitzen denean guztia prest izan nahi dute eta bazkideei izena emateko eskaera egiten diete. Horretarako bazkideek bulegoko ordutegian (asteartea eta osteguna, 10:30etik 12:30era) egin behar dute inskrizpzioa. Taldeak murriztuak izango direla ere nabarmendu dute.

Lasarte-Oria aldizkariko harpidetza

Lasarte-Oriako elkarte eta eragileek argitaratutako Lasarte-Oria aldizkariak bere 83. zenbakia argitaratu du ekainean. Lasarte-Oria aldizkariaren helburua, besteak beste, Lasarte-Oriako historia berreskuratu eta transmititzea da. Aldizkariko harpidedun diren herritarrek etxean jasoko zuten dagoeneko eta bertan dauden herriko elkarteen berriak edo artikulu historikoak irakurriko zituzten.

Lasarte-Oria aldizkaria ikusgarri eta eskuragarri dago *www.danokkide.es* orrialdean, 48. zenbakitik aurrera. Hala ere, bada eskura izan nahi duenik ere. Horregatik, etxean paperezko zenbakia jasotzeko pausoak azaldu ditu aldizkaria kudeatzen duen Danok Kide elkarteak.

Aldizkaria doakoa da. Interesatuek aldizkarian bertan aurki daitekeen harpidetza-orria bete, moztu eta Danok Kide elkarteko postontzian (Blas de Lezo 13 baxua) utzi behar dute. Aldizkaririk eskura ez dutenek, *info@danokkide.es* helbidera bidali dezakete eskaera. Mezuan aldizkaria jaso nahi duen pertsonaren izena eta helbidea zehaztu behar direla nabarmendu du Danok Kide elkarteak.

Kiroldegian, udako ordutegia martxan

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak abuztuaren 31ra arte udako ordutegia indarrean. dela gogorarazten du. Ordutegia honakoa izango da:

- Astelehenetik ostiralera:
  - Kiroldegia: 7:00-13:00 / 16:00-22:00.
  - Igerilekua: 7:00-12:30 / 16:00-21:30.
  - Mitxelin Kirol Gunea: 10:00-12:30 / 17:00-22:00.
- Larunbatetan:
  - Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00.
  - Mitxelin Kirol Gunea: 9:00-13:00.
- Igande eta jai egunetan:
  - Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00.
  - Mitxelin Kirol Gunea: Itxita.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaikoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa. Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.

LANA

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 634 27 81 98.

Pertsona eskaintzen da pertsona adinduen barneko zaintzaile modura lan egiteko. Orduka ere izan daiteke Erreferentzia onak eta esperientzia du. Harremanetarako zenbakia, 622 747 833.

Pertsona eskaintzen da hainbat zereginetan lan egiteko: sukaldaritza laguntzaile, tabernan pintxoak egin, garbiketa lanak egin, pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egin. Asteburuetan ere lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 643 80 37 87.

Pertsona eskaintzen da orduka etxe garbitu edo pertsona adinduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prestutasuna. Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU

Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, 100 eurotan biak. Harremanetarako zenbakia, 670 60 74 95.

Txerriak (9 txerrama), apotea eta txerrikumeak salgai. Harremanetarako zenbakia, 607 668 603.

Mountainbike salgai. Beltza eta arroxa. 8 urtetik aurrerako haurrentzako. Kaskoa, argiak eta osagai guztiekin. Berria bezala. 150 euro. Harremanetarako zenbakia, 637 53 58 51.

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 200 euro. 646 824 466.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

ESKELA

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak
Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iker Lanchas, Olatz Bardaji eta Beñat del Olmo.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 23

LASARTE-ORIA Dantza zirkuitua
XVII. Dantza Zirkuitua izango da. Hiru hitzetan ikuskizuna eskainiko dute. Emanaldi hori Euskal Herriko hiru konpainien hiru piezek osatzen dute; bakoitza 20 minutukoa da, eta sei artistek parte hartuko dute: Myriam Perezek, Jone Amezagak, Nerea Gurrutxagak, Oihana Vesgak, Amaia Elizaranek eta Xabier Zeberiok.
Oriarte BHI Landaberri eraikineko patioa, 19:00etan.

ANDOAIN Kontzertua
Migel Zeberiok zuzendutako Et Incarnatus orkestrak emanaldia eskainiko du Urmuga mendiak eta musika egitasmoaren baitan. Leitzarango Otieta parkean egingo dutela iragarri dute, baina jakinarazi dute eguraldi txarra eginez gero bertan behera geratuko dela ekitaldia.
Leitzarango Otieta parkea, 18:00etan.

ANDOAIN Erakusketa
Arreseygor eta ikasleek *Antropoceno* izeneko erakusketa egingo dute. Artearen esperientzia ekologikoa ikusgai izango da, uztailean zehar.
Basteroko erakusketa aretoa, 13:00etatik 20:30era.

AMASA-VILLABONA Kontzertua
Lasarte-Oriako Makulu Ken musika taldeak kontzertua eskainiko du. Euskal Afrobeat doinuekin gozatu ahal izango dute bertaratzen diren ikus-entzuleek. Erreboteko plazan egingo dutela iragarri duten arren, eguraldi txarra eginez gero, Gurea antzokira lekualdatuko dutela jakinarazi dute.
Erreboteko plaza, 19:00etan.

LARUNBATA 24

LASARTE-ORIA Kontzertua
Olatz Salvador Donostiako musikariak bere azken lana, *Aho Uhal* izenekoa ekarriko du Manuel Lekuonako oholtza gainera. Sarrerak 12 euroren truke daude salgai.
Manuel Lekuona, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Santa Ana Eguna
Aurtengo Santa Ana Eguna ezohikoa izango da aurtengoan ere, baina zailtasunak, zailtasun, Ttakun Kultur Elkarteak, udalaren laguntzarekin batera hainbat ekintza antolatzeko ahalegina egin du. Horrela, 11:00etan, Brigitarren komentuan egingo den Santa Ana Eguneko mezarekin hasiko dute eguna herritarrek. Hori amaituta, eguerdian, Erketz EDTko dantzariek dantza saioa izango da Santa Ana karkaban. Eta hori amaituta, gauaen, Santa Ana Eguneko parodiaz gozatu ahalko dute lasarteoriatarrek. 22:00etan izango da, kultur etxean.
Lasarte-Orian, uztailaren 26an, egunean zehar.

LASARTE Bizikleta martxa
Sare Herritarraren *Ibilian ibilian*, etxerako bidean dinamikaren baitan, udako ekintza bat egingo dute; bizikleta martxa. Zumaia eta Donostia lotuko ditu bizikle martxak, eta Lasarte-Oriako Sarek bat egingo du horrekin. Egitasmoaren hirugarren eta azken etapa izango da. Bertan parte hartzeko izen ematea ezinbestekoa dela jakinarazi dute antolatzaileek, eta, horretarako, honako helbide hau jarri dute interesatuen eskura: *sare.eus/bizikleta-itzulia*
Okendo plaza, 10:30ean.

AMASA-VILLABONA Ikuskizuna
Korrontzi musika taldeak eta Oinkari dantza taldeak *Koplariak* emanaldia eskainiko dute. Kopla zaharrak eta doinu berriak bateratzen dituen ikuskizuna ikusteko aukera izango dute bertaratzen diren ikus-entzuleek. Euskarazko kopla izango dira ikuskizunaren muina, horietako gehienak Xabier Amuriza bertsolari eta idazlearenak.
Errebote plaza, 22:00etan.

IGANDEA 25

AMASA-VILLABONA Kontzertua
Gorka Hermosa eta Garikoitz Mendizabalel Folklore Fusionatua emanaldia eskainiko dute; tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen XXI. mendeko euskal kulturari begirada berria egin diote.
Txistulari plaza, 13:00etan.

AMASA-VILLABONA Bertsoak
Amasa-Villabonako Udaleko kultura sailak antolatuta, bertso saioa izango da. Amaia Agirre arituko da gai-jartzaile lanetan, eta bertsotan, berriz, Alaia Martin, Nerea Ibarzabal, Oihana Iguaran, Sustrai olina, Unai Iturriaga eta Iker Zubeldia arituko dira. Arroako plazan egingo dutela iragarri duten arren, eguraldi txarra egingo balu, Olaederra kiroldegira lekualdatuko dutela jakinarazi dute.
Arroako plaza, 19:00etan.

ZINEMA

USURBIL

URBIL

¡A todo tren! Destino Asturias
Ostirala: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.
Larunbata: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45
Igandea: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.

Expediente Warren: Obligado por el demonio
Ostirala: 20:40.
Larunbata: 20:40.
Igandea: 20:40.

Fast & Furious 9
Ostirala: 16:10, 18:30, 20:45, 21:45.
Larunbata: 16:10, 18:30, 20:45, 21:45.
Igandea: 16:10, 18:30, 20:45, 21:45.

La Purga Infinita
Ostirala: 15:55, 19:25, 22:00.
Larunbata: 15:55, 19:25, 22:00.
Igandea: 15:55, 19:25, 22:00.

Operación Camaron
Ostirala: 17:00, 22:25.
Larunbata: 17:00, 22:25.
Igandea: 17:00, 22:25.

Peter Rabbit 2: A la fuga
Ostirala: 15:50, 18:15.
Larunbata: 15:50, 18:15.
Igandea: 15:50, 18:15.

Space Jam: Nuevas leyendas
Ostirala: 16:05, 18:00, 18:50, 19:40, 21:35.
Larunbata: 16:05, 18:00, 18:50, 19:40, 21:35.
Igandea: 16:05, 18:00, 18:50, 19:40, 21:35.

Viuda negra
Ostirala: 16:00, 19:05, 22:10.
Larunbata: 16:00, 19:05, 22:10.
Igandea: 16:00, 19:05, 22:10.

ASTELEHENA 26

LASARTE-ORIA Parodia
Santa Ana Eguneko ekintzak izango dira. 11:00etan meza Brigitarren komentuan; 12:00etan Erketz EDTren dantza saioa Santa Ana karkaban; eta, 22:00etan parodia.
Lasarte-Orian, egunean zehar.

AMASA-VILLABONA Kontzertua
The Beatles pop eta rock talde asko ezagunaren tributo talde The Nowhere Plan taldeak musika emanaldia eskainiko du. Txistulari plazan egingo dutela iragarri duten arren, eguraldi txarra egingo balu, Gurea antzokira lekualdatuko dutela jakinarazi dute antolattzaileek.
Gurea antzokia, 19:00etan.

OSTEGUNA 29

USURBIL Kontzertua
VI. Laboaren Uztaila ekimenaren barruan, Usansoloko musikari Garazi Navasek emanaldia eskainiko du. Musikene Goi Mailako Musika Eskolan lizentziatu berri da, eta, oso gaztea izan arren, proiektu ugaritan hartu du parte, hala nola, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin, eta zenbait sari ere irabazi ditu. Egun, musika garaikidearen eta tradizionalaren arteko loturaren inguruko ikerketa egiten ari da, beti ere interpretazioaren aldetik. Ekintza horretan parte hartzeko sarrerak eskuratzea ezinbestekoa dela jakinarazi dute antolatzaileek. Eguraldi txarrarekin, Sutegin.
Mikel Laboa plaza, 22:000etan.

AMASA-VILLABONA Kontzertua
Gari Uriarte eta Beñat Oribe aguraindarrek Dupla izeneko taldea osatu dute, eta nekazal ingurune baten musika urbanoa egiten dute. Ukitu elektronikoak dituen hip-hop musika estiloko kantuak sortzen dituzte. Erreboteko plazan egingo dutela iragarri duten arren, eguraldi txarra egingo balu, Gurea antzokira lekualdatuko dutela jakinarazi dute antolattzaileek.
Errebote plaza, 19:00etan.

OSTIRALA 30

LASARTE-ORIA Dantza zirkuitua
Hortzmuga antzerki taldeak uztaileko kale-antzerkiko saioei amaiera emango die *Al final del camino* lanarekin.
Oriarte BHI Landaberri eraikineko patioa, 19:00etan.

UZTAILEAN ZEHAR

LASARTE-ORIA Erakusketa
Elkartea sortu berri duen Dinagu Emakume Sortzaileen Kolektiboak ekimen berri bat jarri du martxan. Kolektiboaren izaera mugikorra definitzen duen *Nomadak Gaitun* azoka ibiltariak, eta Azpeitian egin dute lehen geldialdia. Elkarlanean, modu kooperatiboan, antolatutako azokan erakutsi dituzte euren lanak. Moda, bitxigintza, dekorazio zein ilustrazioaren munduan murgilduta lanean dabiltzan. Sortzaileen lana ezagutu nahi dutenentzat, berriz, erakusketa bat ere prestatu dute herriko Kool Studion.
Kool Studio, dendako ordutegian.

LASARTE-ORIA
GREMIOEN GIDA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

Herriko GIDA KOMERTZIALA sarean ikus dezakezu
www.txintxarri.eus/gida

Elektrizitatea

ELECTRICIDAD EZA ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

Iturgintza

ILLARRETA
ITURGINTZA IGELTSERITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSERITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 606 686 615 eta 943 36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

Kristaldegi eta leihoak

ÑORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

- *Komertzial instalazioak*
- *Beira bikoitza*
- *Segurtasun beirak*
- *Dutxa-itxiturak eta irristailuak*
- *Ispiluak*
- *Barandak*
- *Kristal mota guztiak...*

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

ISU

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak, barandak, toldoak,armairuak, eltxo sareak eta gehiago...

Kale Nagusia, 46 behea. LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala USURBIL

943 366 495
ventanas_isu@hotmail.com

Barne-Diseinua

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943 361 471
www.sugatecocinas.com

Igeltseritza

ANTONIO ARREGUI, S.L. eraikuntza materialak
GAMMA

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNEKO KONPLEMENTUAK

www.gamma.es

BILTEGI OROKORRA
Oria Etorbidea, 6
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 64 73
aarreguisl@gmail.com

ERAKUSKETA
Goikale, 2
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 59 47
Faxa: 943 36 59 47

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

Gida honetan azaldu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus